

# ANAITASUNA

234. zenb.

1972.eko Maiatzaren 15ekoa

Encarnación, 19. (Artetxu) - BILBAO-6  
Teléfono 33 19 97 - Apartado 495



## “Straw Dogs” (perros de paja)

Bortizkeriaren\* eta gogortasunaren esplosioa. Hauxe dela esan liteke, azken hiru asteotan Bilboko «Astoria» zinetokian eman duten filmea.

Pelikularen egilea, Sam Peckinpah, Californian jaio zen 1926.ean. Haren izeba\* bat indiaoa zen, Paiute indioen artekoa. Sei filme egin ditu orain arte; eta hemen ikusi ditugunak, hauxek dira: «Duelo en la alta sierra», «Mayor Dunde», «Grupo salvaje», «La balada de Cable Hogue» eta «Perros de paja».

Lehen irudietatik hasi eta, «Perros de paja» filmeak egonezina sortertzten du. Eskoziako herritxo batean gertatzen da istorio hau. Herritxo horren irudia pesimista eta higuigarria da. Aurpegiak, behakoak,\* hizketak... gogorkeriaz beterik daude. Gogortasun giro bat hausnar-tzen\* da.

Bestalde, amerikano irakaslea bigun eta kokolo\* bat legez\* agertzen da. Ez dakigu argi, zergatik etorri den Ipar Amerikatik herritxo horretara. Gudu arazoetan parte hartu nahi ez duelako? Gogortasuna ikusi ezin duelako? Irri eta barre egiten diote. Beste mundu batetan bizi

dela esan liteke, edo, bere inguruan jazotzen\* denari ohartu arren, beste mundu batetan bizi nahi duela.

Baina, azkenez, nahitanahiez behar du parte hartu. Hemen, Peckinpah-ren filme bi, «Grupo salvaje» eta hau, hari batek lotzen ditu: gizarteko gorabeheretan, alegia,\* nahitanahiez jarrera\* bat hartu behar dela; inguruak denoi, erabaki bat hartzerantz bultz egiten daukula. Filme bietan, azkena beldurgarrikoa da: herioa,\* odola eta gogortasuna neurri gabe agertzen dira. Eta bietan, bai «taldea» eta bai irakaslea erabaki horretara heltzen dira, beren inguruan dagoen bortizkeria\* eta giza eskubideen zapalkuntza ikusirik.

Filmearen azken parteak odol orgia bat dirudi. Benetan, AMAIA agertzen denean, jarlekutik jaikitze gogorik gabe gelditzen da ikuslea. Ene ustez, gogoeta\* gai sakonak agertzen dira. Tamalez,\* asko eta asko ir-teten\* dira zinetokitik, sartu diren bezala, problemarik sortu gabe. Ba dio Sam Peckinpah-k berak ere: «Ez zait gustatzen, zinemara patxadaz jarritik egoteko asmoz joaten den jendea».

Asimismo, se le notifica que, conforme lo establecido en el artículo 72 de la Ley de Prensa e Imprenta, la sentencia o resolución administrativa de carácter firme, que imponga sanciones, deberá insertarse en la misma publicación a que se refiera, en uno de los tres números inmediatamente posteriores a su notificación.

MINISTERIO  
DE  
INFORMACION Y TURISMO

Madrid a 17 de abril de 1972 / 8/72

El Ilmo. Sr. Director General de Prensa ha dictado con fecha la siguiente

## RESOLUCION

"Vistas las actuaciones practicadas en el expediente número 8/72, instruido por la Delegación Provincial de Información y Turismo en Vizcaya al Director de la publicación periódica titulada "ANAITASUNA", de Bilbao; así como la propuesta de resolución formulada por el Instructor, y

RESULTANDO.—Que por orden del Ilmo. Sr. Director General de Prensa, de fecha 17 de enero de 1972, se procedió por la Delegación Provincial del Departamento en Vizcaya a la instrucción de expediente administrativo al Director de la referida publicación, por presunta infracción de normas vigentes en materia de Prensa; nombrándose Instructor y Secretario para la sustanciación del expediente a funcionarios de aquella Delegación Provincial.

RESULTANDO.—Que en cumplimiento de lo prevenido en el artículo 4.º de la Orden Ministerial de 22 de octubre de 1952, modificada por la de 29 de noviembre de 1956 se formuló y remitió al Director de "ANAITASUNA", de Bilbao, el correspondiente Pliego de Cargos, que contenía las siguientes imputaciones: "Publicar en la portada del número 225 de la publicación periódica titulada "ANAITASUNA", correspondiente al 30 de diciembre de 1971, un texto, que aparece precedido e ilustrado por la fotografía de unos jóvenes ante unas bayonetas, titulado "Tú, país vasco", en el que se exponen ideas y juicios cuya difusión puede suponer infracción del artículo 2.º de la Ley de Prensa e Imprenta, en lo referente al debido acatamiento a las Leyes Fundamentales, concretamente, a los artículos 12 y 33 del Fuero de los Españoles y demás normas fundamentales de nuestro ordenamiento jurídico que definen como intangible la unidad nacional.

Dicho Principio, instituido como norma básica de las Leyes Fundamentales Españolas, puede estimarse infringido en el texto en cuestión, junto con la fotografía que lo ilustra, al presentarse a una región española como un pueblo "Negado, arrinconado y pisoteado", al que quieren quitar el nombre y lo que ha sido", calificándosele, asimismo, de "pueblo maldito que ha subsistido".

RESULTANDO.—Que dentro del plazo legal concedido, y con debida forma, Don Angel Celaieta Guisasola, Director de la mencionada publicación presentó escrito de descargo en el que sustancialmente alega: Que el trabajo en cuestión es una pieza literaria, donde suelen escogerse las palabras por su sonoridad y las frases por su impacto, todo ello tendente a dar a la pieza literaria el efecto buscado por el autor.—Que examinado el trabajo en su conjunto se observa que el efecto perseguido por su autor es invitar a los hijos de la tierra a reconsiderar sus relaciones con ella, pidiendo que sean sin estridencias, sencillas, naturales.—Que el efecto de la fotografía de primera página, tomada de una revista extranjera y referida al extranjero, es de pacifismo y serenidad.—Que las frases incriminadas no pueden tomarse aisladas de su contexto, y en todo el artículo jamás se habla de fuerzas extrañas o ajenas al país; siendo evidente la estructura del artículo:

Filme hau ondo baino hobeto egin du. Sarritan, irudiek berek berba egiten daukute. Haien bidez dakigu gizonen pentsamoldea. Heriotzeko sufrimendua, «cámara lenta» delakoaren bidez luzatzen du. Hori bai, ikusle guztientzat ez da ona, oso gogorra eta higuingarria baita benetan.

Dustin Hoffman egoki; bere zeregina betetzeko aproposkoa. Espainiako zentsurak moztu egin ditu erotismo alderdiko irudi batzuk; ez, ostera, bortizkeri alderdikoak.

BENITO ANSOLA

daude, dagoz

diote, dautsoe

dauku, dauku, digu

rait, jat

daukute, daukue, digute

en la primera parte, dirigiéndose al propio país, el autor hace consideraciones sobre la modestia de la historia del país; en la segunda, donde se encuentran las frases incriminadas, hay un sujeto activo de todos los verbos, de todas las frases y que está elidido en alguna de ellas por razón del tratamiento literario del texto, pero que es el único que puede admitirse dentro de los criterios lógicos y gramaticales; este sujeto activo, elidido a veces, está constituido por los hijos del país vasco.—Que no hay posibilidad de entender que el caso ergativo que rige estos verbos sea distinto del que el autor le ha dado.—Que no hay, por tanto, vulneración del Fuero de los Españoles.—Que el tema de la ingratitud de los hijos del país y su desidia hacia él es, por otra parte, sobradamente conocido dentro de la literatura vasca.—Concluye solicitando se desestime el Plego de Cargos.

RESULTANDO.—Que consultados los antecedentes obrantes en la Dirección General de Prensa no aparece que el Director responsable de la publicación periódica "ANAITASUNA", de Bilbao, haya sido sancionado por infracción de normas vigentes en materia de Prensa.

RESULTANDO.—Que en la tramitación de las presentes actuaciones se han observado y cumplido todas las prescripciones legales.

VISTOS la Ley de Prensa e Imprenta de 18 de marzo de 1966, el Decreto de Información y Turismo de 4 de agosto de 1952, la Orden Ministerial de 22 de octubre de 1952, modificada por la de 29 de noviembre de 1956, la Ley de Procedimiento Administrativo de 17 de julio de 1958, revisada por la de 2 de diciembre de 1963, y demás disposiciones legales de pertinente aplicación.

CONSIDERANDO.—Que el derecho a la libertad de expresión de las ideas, reconocido a los españoles en el artículo 12 de su Fuero y recogido en el artículo 1.º de la Ley de Prensa e Imprenta, está condicionado en su extensión, cuando se ejercita mediante o a través de impresos, por las limitaciones contenidas en el artículo 2.º de la expresada Ley que protege derechos y situaciones jurídicas de entre los que debe destacarse aquí el acatamiento debido a la Ley de Principios del Movimiento Nacional y demás Leyes Fundamentales, cuyo acatamiento viene a concretar aquel derecho, determina las condiciones legales en que debe ejercitarse, y cumple la función de poner coto a posibles abusos contra el bien jurídico representado por los principios de nuestro derecho fundamental de organización.

CONSIDERANDO.—Que es inoperante la alegación aducida por el Director expedientado respecto del carácter literario del texto y de la intención de su autor, por que en primer lugar, no se opone a la posibilidad de comisión de infracciones administrativas de Prensa el hecho de que éstas se produzcan en una "pieza literaria"; y en segundo lugar, por que es una afirmación gratuita sostener que el efecto perseguido por el autor del texto incriminado es invitar a los hijos de la tierra (provincias Vascongadas), a reconsiderar sus relaciones con ella, ya que si bien la intención del autor es un elemento subjetivo cuya determinación última escapa a los lectores potenciales de la revista, sin embargo, es posible fijar dicha intención atendiendo a lo que, según la crítica lógico-racional, aparezca del propio texto; y de éste se induce que constituye un canto al "país vasco", al que ama el autor por la razón de ser un país negado, arrinconado, pisoteado, al que quieren quitar el nombre y lo que ha sido.

CONSIDERANDO.—Que carece igualmente de fuerza exculpatoria la argumentación de estar todo el texto referido a los hijos del país vasco quienes, como sujeto activo elidido, son los que niegan, arrinconan, pisotean, etc., a su país; toda vez que, de una parte, se contiene en el propio texto una cita expresa de los hijos del país como sujeto pasivo de esa negación del pueblo y países vascos, en cuanto "pueblo maldito que ha subsistido"; y de otra parte, el supuesto sujeto activo (los hijos del país) es incompatible con la construcción y ordenación que se da a los párrafos si se interpretan éstos con arreglo a su sentido lógico y gramatical; es decir, que la expresión "tus hijos" se refiere expresamente al olvido y vergüenza que sienten por la causa descrita más arriba, pero no al sujeto de la acción de los verbos "negar", "arrinconar", "pisotear" y "quitar" (el nombre), por que de otro modo se violentaría el sentido del texto, que es claro por sí mismo sin necesidad de forzar una elisión que no existe. Y está interpretación de refuerzo con sólo contemplar la significativa fotografía de portada, que precede al texto, donde aparecen unos jóvenes ante unas bayonetas.

CONSIDERANDO.—Que la concepción de una región española como país negado, arrinconado y pisoteado, al que quieren quitar el nombre y el ser, "tierra ensuciada", calificándolo en su vertiente humana de "pueblo maldito que ha subsistido", constituye, tanto si estas expresiones se consideran aisladamente como en el contexto del artículo periodístico "tú, país vasco", junto con la fotografía que lo ilustra, una infracción del artículo 2.º de la Ley de Prensa e Imprenta, respecto del debido acatamiento a la Ley de Principios del Movimiento Nacional y demás Leyes Fundamentales, concreta-

**Idazlan ulergaitzak**

Orain asko ez dela, aldizkari honetan nola idatzi behar den azaltzen zuen bi partetako artikulua bat irakurri genuen, hots,\* modu errazez idazteko araudi\* llabur bat. Guztiz ondo deritzat jokaera honi. Eta, ene ustez, aldizkari honek bide horretatik nahi du joan.

Sarritan\* jazo\* zaio edonori, liburu bat zein\* artikulua bat irakurtzen hasi eta tutik ere ez aditzea, oso ulergaitz gertatzen zaiolako, nahiz eta gaia hain zaila ez izan. Zergatik hori? Erantzun zehatzik ematen ez dakit, denok ez baitugu edozer irakurtzeko eta ulertzeko trebetasun eta erraztasun bera, eta ni, gainera, euskaldun berria bainaz. Hala ere, neure eritzia azalduko dut. Idazlan asko ozta\* ozta ulertzen dira, edo idazkera oso bihurria delako, edo apainkeria larregi\* dagoelako, edo eta hitz ezezagun eta zehaztasun gabeko asko erabiltzen direlako.

Hau dela eta, berba, esaldi eta azalpide errazak erabili behar lituzke idazleak. (Honekin ez dut esan nahi, umekerietan ibili behar duenik, ez eta idazlankera\* ximplegi batez baliatu behar duenik ere).

Beretzat idazten ez duenez gero, idazkera argia eta hitz guztiz ezagunak maneiatu behar lituzke. Osterantzean,\* euskal kultura gizarte maila baten monopolioa izaten jarraituko da, eta herriaren kultur egoera bere hartan iraungo du.

Jakina, arazoa\* hau ez da hõrren errazki konpontzen. Baina, kultura gutiko beste zenbait\* herritan egiten den bezala, taktika apurto batekin jokatu bagenu, gauzak asko eta asko hobetuko lirake.

ANDONI ZORRILLA (Barakaldo)

**Euskarari buruz artikulua gehiegi**

ANAITASUNAREN aspaldiko irakurlea naiz, eta, beraz, ni ere ANAITASUNAREN arduradun\* sentitzen naiz, zeren\* guztiok osatzen baitugu ANAITASUNA: idazleek eta irakurleek ere bai. Horregatik egiten dut kritika (autokritika) labur hau.

Euskararen alderditik oso ona iruditzen zait gure aldizkaria, hoberena. Baina agian\* ugariegiak dira, euskarari buruz ematen diren artikulua. Lan ideologiko gehiago behar ditugu. Gainera, alfabetatzeko taldeek gehien erabiltzen duten aldizkaria izanik, zenbait\* texto apropos behar lirakeke argitaratu. Zergatik ez du Arestik aspaldion idazten? Eusebio Osaren artikulua gogoz irakurri ditugu hemen; jarrai dadila berean. Uste dut, ale bakoitzeko gaiak gehiago lotu behar direla, ale bakoitza monografi gisara\* bateratuz.

J. L. AIESTARAN (Donostia)

**ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.**

**Zuzendari:** Anjel Zelaieta.

**Zuzentzaile:** Imanol Berriatua.

**Idazkola eta banakolaren buru:** Josu Torre.

**Bulegoak:** Encarnación 19, Bilbao-6.

**Inprimatzaile:** AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

**Irarle:** RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

**XX. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.

mente el Principio IV de dicha Ley y los artículos 12 y 33 del Fuero de los Españoles, toda vez que, puestos en relación fotografía y texto, se aprecia que la expresada falta de acatamiento atenta a los principios fundamentales del Estado y a la unidad nacional de España desde el momento en que se traza para la citada región, de modo claramente deducible, un esquema de pueblo sometido.

CONSIDERANDO.—Que la infracción que se declara cometida es de las que como leves contempla el artículo 68, Dos, de la citada Ley de Prensa e Imprenta.

CONSIDERANDO.—Que de la citada infracción debe declararse responsable al Director de la publicación "ANAITASUNA", de Bilbao, Don Angel Celaieta Guisasaola, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 del expresado texto legal; debiendo declararse, además, la responsabilidad solidaria a estos efectos de la empresa propietaria de la publicación.

CONSIDERANDO.—Que la competencia para corregir las infracciones de carácter leve corresponde al Ilmo. Sr. Director General de Prensa, cuando son cometidas por este medio, a tenor de lo prevenido en el artículo 70, Uno, de dicha Ley.

Por cuanto antecede esta Dirección de Prensa, a la vista de las actuaciones practicadas, ha resuelto imponer a Don Angel Celaieta Guisasaola, como Director responsable de la publicación periódica titulada "ANAITASUNA", de Bilbao, la sanción de multa de VEINTICINCO MIL PESETAS, prevista en el artículo 69, Uno, a), primero, de la vigente Ley de Prensa e Imprenta; declarando expresamente la responsabilidad solidaria a estos efectos de la empresa propietaria de la publicación.—El Director General de Prensa.—Firmado: Alejandro Fernández Sordo.—Rubricado.

Lo que notifico a usted en cumplimiento y a los efectos de lo previsto en los artículos 8, 9, 10 y 11 de la Orden de este Ministerio de 22 de octubre de 1952, modificada por la de 29 de noviembre de 1956, artículo 71 de la Ley de Prensa

e Imprenta, de 18 de marzo de 1966, y artículo 79, 113 y siguientes de la Ley de Procedimiento Administrativo de 17 de julio de 1958, revisada por Ley 164/1963, de 2 de diciembre; significándole, de acuerdo con las disposiciones anteriormente citadas, lo siguiente:

- El acuerdo que por este escrito se notifica es inmediatamente ejecutivo, según lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley de Procedimiento Administrativo.
- El importe de la multa impuesta deberá hacerse efectivo en Papel de Pagos al Estado dentro del plazo de quince días hábiles en las dependencias de la Delegación Provincial del Ministerio de Información y Turismo en Barcelona.
- Contra la mencionada resolución cabe interponer recurso de alzada ante el Excmo. Sr. Ministro de Información y Turismo, que deberá presentar en este Ministerio en el plazo de quince días, según se establece en el artículo 71, apartado a), de la vigente Ley de Prensa e Imprenta, en relación con lo dispuesto en el artículo 122 de la Ley de Procedimiento Administrativo. Al escrito de recurso deberá acompañarse el resguardo acreditativo de haber realizado el depósito del importe de la multa en la Caja General de Depósitos, o Sucursal correspondiente, a la disposición de la Autoridad que dictó la Resolución.
- Transcurrido el plazo legal concedido al efecto sin haberse interpuesto el recurso de alzada, la sanción será firme, y en un plazo de cinco días deberá hacerse efectivo el importe de la multa, a tenor de lo indicado en el anterior apartado b).
- Si dentro de los plazos legales no se hubiese satisfecho o depositado el importe de la multa, se procederá a su cobro por la vía administrativa de apremio.

EL SUBDIRECTOR GENERAL DE REGIMEN JURIDICO DE LA PRENSA

## **ANAITASUNA** aldizkariari multa

Irakurleak ale honetan ikus dezakeenez, 25.000 pezetako multa\* jaso izan dugu. Osterantzean\* ere oso ahul\* dugun geure ekonomiarentzat, istripu\* gogorra benetan. Uste dugu, hala ere, gure irakurleek, harpidedun berriak eginez eta, gogo onez lagunduko daukutela egoera larri honetan.

## **Martin Olazar** apaiza zigortua

Martin Olazar, Zeanuriko parrokoak, bere ardurapeko elizpean egoen gerra zibilean hildakoen alderako oroitarria\* kendu egin eban, joan dan abenduaren 22an. Hori dala eta, 150.000 pezetako multa\* jaso izan dau.

## **Bertsolariak** Elizondoko ikastolaren alde

Nafarroako Elizondon Lasarte, Mattin, Lazkano eta Agirre bertsolariek ihardun berri dabe, Mariano Izetaren zuzendaritzapean, ikastolaren alde dirua biltzeko.

## **Pelotariak** ikastolaren alde

Nafarroako Lizarran\* eta Altsasuan pelota partidu batzuk jokatu berri izan dira, horrela bildu\* diruarekin ikastolei lagundu ahal izateko.

## **«Laminaciones de Lesaca»** lantegian 1.500 behargin

Nafarroako Lesakan dagoen «Laminaciones de Lesaca, S. A.» enpresak, lanleku berriak muntatuko ditu «Zalainzoko» izeneko aurkientzan.\* Obra berri honeek aurtengo azkenetan amaituko dira; eta orduan 1.500 langile izango dira, enpresa horretan behar\* egingo dabenak.

## **«Mutiko Alaiak»** Australian

Iruineko «Mutiko Alaiak» dantza taldeak Australian ihardun izan dau, lurralde urrun haretan maiatzaren 10etik 16rarte ospatu izan dan folklore jaialdi batean.

## **Mariano Crespo, «Lo Oliva»ko** abade berria

Mariano Crespo Domingo aragoindarra izendatua izan da «La Oliva»ko fraile zistertarren abade berri. Nafarroako monasterio ospetsu hau Gartzeta Ramirez erregeak eraiki eban, 1134. urtean.

## **«Diskola»** etxearen disko berria

«Diskola» etxeak disko berri bat atera dau, kanta bi dituana, Ospital eta Carrère-k,T. Monzon euskal politikari burges eta liberalak egindako «Ez dut galdu arima» kantatzen dabe; eta Sarasolak «Good bye, Mister Fly» izenekoak.

## **Manex Pagolaren** disko berria

Baionako «Editions Goiztiri» delakoak disko bat atera berri du. Haren autorea Manex Pagola, Baionako bi gazte lagun dituela. Kantuen izenak: «Munduko bideetan», «Burgos», «Lendakaria» eta «Euzkadiko langileak». Ez dugu oraindik disko hori hegoaldean ezagutzen.

## **Langileen** heriotzak

Jose Beroiz eta Luis Alkorta langile gazteek heriotzaren zigorrarekin topo egin eben Iruineko «Potasas de Navarra» lantegian, joan dan apirilaren 19an. Langile gazte bi horreek bezala, beste askok ere azken zorte\* gaizto hori izaten dabelarik, bi horreen heriotzaren berri emanez, beste guztiok ere gogoratu nahi ditugu.

## **Madriko afari politikoak**

Apirilaren 26ko «El Correo Español - El Pueblo Vasco» egunkarian, Madriko afari politikoak direla eta ez direla, honako hau irakurri dugu: «Prados Arrarte ekonomistak esan zuen: alderdi politikoak, beste izen horrekin, nahi eta nahiezkoak dira, Europako Merkatu Komunean partaide izateko. Ezin gaitzekete partaide izan erakunde\* demokratikorik gabe, Greziako kasuak erakusten daukenez.

Manuel Maysonave arabar abokatuak plan bat proposatu zuen,Frantziarekin batera jokatzeko, Espainia aldeko eta Frantzia aldeko Euskal Herria desarroilatzeko».

## **«Espainia 1985»**

Zaragozako «Aragón-Exprés» egunkarian, Pablo Larrañetak Amando de Miguel jaunari honelako entrebista hau egin dio: «Espainia 1985» Amando de Miguelen begipean. Espainiak 1985.ean edukiko duen gobernamentu politikoa,militarra izanen dela uste dut, buruzagitzan oso pertsona argiak ukanen dituen. Estatuak ez duke\* inolako karga erlijiosorik edukiko, eta Europako Merkatu Komunean sartuko garateke.\* Etorkizun hurbil batetan, *Estatu-Nazioaren* kontzeptua bera ere desager daiteke, eta eskualdeak,\* aldiz,\* Europako zelula gisa,\* indarra hartuko duke. Eskualde jatorrak,\* beraz, nazioak baino etorkizun andiago bat du.



**Emakume, gizonezko eta umeen jantziak**

**Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak**

**HURI ZAHARRA**

**«Casco Viejo»**

**BILBO**

## Arestiren judizioa zela eta

Jakin berri dugunez eta horretaz galdetu daukuten guztiei erantzun nahirik, Gabriel Aresti Bilbotar poeta ezagunari, ihaz\* LURen publikatu zuen «Harrizko Herri Hau» liburuagatik egin nahi zitzaion judizioa ez da aurrera eramanen, liburu horretan legearen kontrarik balego ere, haik\* ihazko indultoareh barnean gelditzen lirakeelako. Beraz, alde horretatik behintzat, ez du kargurik, ez eta etxekoen eguneroko ogia eta ikustea oraingoz galtzeko perilik.\*

## Karmen Lambea hil da

Karmen Lambea hil da Erroman. Donostian jaioa zan, eta «Siervas de María» izeneko seroren\* nagusia zan 1963.az geroztik. 71 urte zituan. Goian bego!

## Lope de Agirre zanaren inguruan eritzi desberdinak

Lope de Agirre oñatiarrari buruz, oraindik oraintsu, zera esan dau Julio Caro Baroja jakintsuak: «Es un hombre del país, muy del país vasco». Bilboko «El Correo Español - El Pueblo Vasco» egunkariko «Arba» kazetariak,\* ostera, beste zer hau dino: «Creo que cualquier lector que conozca la trayectoria del que fue llamado «el caudillo de los marañones» (amén de «Aguirre el loco», «Aguirre el traidor» y «el tirano Aguirre») tendrá más de un motivo para sorprenderse de que a semejante individuo se le pueda definir de «hombre del país, muy del país vasco».

## Lexonako III. Idatz Sariketaren irabazleak

Lexonako «Itxas Alde» kultur taldeak aurten ere Idazketa eta Ipuinetarako antolatu duen III. sariketan, euskal arloari dagokionez, idazle hauk\* gertatu dira sarituak: Idazketa sailean, Jose Luis Lizundia idazkide ezaguna «Lexonako Unibertsitateak herriari eta hirigintzari\* ekar dietzakeon abantail-eragozpenak» delako gaiaz. Ipuin sailean, aldiz,\* lehen saria Patxi Goenaga azpeitiar jatorrak irabazi du bere «Itxaropen galdua»z, eta bigarrena Xabier Kintanak bere «Itsasoari begira»z.

Sariok maiatzaren 7an jaso ahal ukan zituzten, «Itxas Alde»koek Lexonan horretarako muntatu zuten jaialdian, bertan «Mocedades» taldeak parte harturik.

## «Lizarrako dultzaineroak», disko berria.

Donostiako «Herri Gogoa» etxeak argitaratu dauan azken disko honek Eugenio Lazarraga eta beronen bi seme dultzaineroen saioak dakarskuz. Dultzaina gaur egun Nafarroan bakarrik jotzen bada ere, lehen Euskal Herri osoan jotzen zan, jai egunetako alaigarri izanik. Lizarrako\* dultzainaren historia labur batek osatzen dau diskoa. Banatzailea: Iñaki Beobide, Ferrerías 1, Donostia.

## Federiko Zabala jaunaren mintzaldia Beasainen

Federiko Zabala irakasleak berbaldi bat eman izan dau euskal historiari buruz Beasainen, apirilaren 14ean. Zabala jaunak liburu bi argitara eman berri ditu, «Historia del País Vasco» izenburuarekin, «Añamendi» etxeren bidez.


**Legezkoa da gaur eguneko emakumeak bere bankoan kontu irekia edukitzea.**

**Lehen, diru aurreatuaren kontua aurrezki gutun batean gordetzen zuen bezala.**



**Banco de Bilbao**

**Banko honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu**



## Bi jakintsuren aitorrak

Medikuntzan Nobel-Sari eta 1970.ean «La logique du vivant» liburu bikainaren egile, oso aitor mamitsuak egin ditu berriki\* François Jacob-ek Biologiāz, eta Filosofiak gaur dituen arazo nagusiez. Monod eta Lwoff-ekin Nobel-kide, biologilari apartak ez du aitor hauetan filosofiazko hipotesirik onhartu; nahiz eta filosofiazko hipotesi hoik\* zientzi gizonak ere egitea Jacobek berak gisakotzat\* hartzen badu ere. Biologilari hutsa mintzo\* delarik, ordea gertakariak eta aurkikundeak aipatu behar ditu soilki.

Hots, zer aurkitzen dute gaurko biologilariak?

Puntu batek harritzen omen\* du oso Jacob jakintsua: urteetan barrena aldatuago izan ohi dela zientzi azalpenen *izena*, azalpen hoiexen *izana* baino.

XIX. mendeko\* kimikariek, esate baterako, bizidunen molekula erraldoiak\* nola antola daitezkeen ez zuten ulertzen; eta orduan, indar antolatzaile eta egitura-emale izkutu horri «force vitale» eritzi\* zioten: alegia,\* «bizi-indar». Gaur Zibernetikāren irakaspenen ondorioz, beste izen batez bataiatu da indar egituratzaile\* hori. Hots,\* dio Jacobek, «c'est exactement ce qu'on dit aujourd'hui, mais on appelle cela énergie et information»; hau da, gaur adierazten dena zehazki da, izan, «bizi-indar» hitzez adierazten zen hura\*; baina orain hari berari «energia» eta «informazio» deritza.

Aitor hau ezin larriago\* da, eta anitz\* ondorioren ekarle gerta daiteke. Baina gaurko jakintza adar guztietan nabari\* den joera berriarekin guztiz berez eta borxarrik gabe ezkon daiteke; eta, ideia-bateratasun honen berri izanda (jadanik\* ez badu), ez litzateke Jacob bera gaitzitik.\*

Hitz guttitan esateko, bai eta zientziaren alorrean\* ere, mami berari urteetan barrena azal desberdinak dagozkie; edo, oraindik ere bestela esateko, «adierazi» berberari (significado, signifié), «adierazle» desberdinak dagozkie (significado, signifiant). «Adierazle» hauek, hitz-tegi berriak beraz, ez dute problema argitzen, problema izen berri batez izendatzen eta deitzen baizik. Lacan-ek bezala esateko, «ni» hitzak, esate baterako, ez du gure nitasuna argitzen ez biltzen, kanpoaldetik izendatzen baizik.

Jacobek aitortzen duenez, hortaz,\* zientziak izen berri bat bataiatzen du ezezaguna eta gordea; baina egiaren izkutukiak\* eta misterioak, izen berrion atzean ere, hor diraute\* beren hartan.

Schrödinger fisikaria eta Roman Jacobson hizkuntzalariaren ideiak ontzat hartuz (gaurko biologilariak eskuarki\* egin duten bezala, egia esateko), zelulako kromosoma eta liburuiko izkribua edo «testoa» guztiz antzekoak iruditzen zaizkie Jacobi.

Zuntz\* genetikoaren luzeran «irakur» daitezkeen kimika-radikalak, eta Fortran-programa baten lerroetan «irakur» daitezkeen sinboloak, benetan zaizkie kide heretsiak:\* bakanka harturik adikizunik ez badute ere, elkar-turik «mezu»\* bat dakarte, operabide bat; eta operabide hau gero Zibernetikaren arabera\* obratzen da; alegia, azken funts zolan,\* «bai» ala «ez» arrapostu\* bikunaren\* bidez.

Kateko elemento bakar baten aldakuntza edo lardaska,\* bai zuntz genetikoan, bai programa elektronikoan, ondorio berbera dakar: programak ez duela, eman behar zukeena ematen; edo, *huts* hori egin delako, beste ondorio bat dakarrela. «Huts» hoietaz baliatuz azaltzen ditu gaur Biologiak mutazioak eta eboluzioa.

Baina azalpen hau argitzaile izanik ere, egundoko\* ilunpeak ere dakarzki ondotik. Berrogei orrialde dituen Fortran-programa bat, programa koxkorra da. Zenbat ikur edo sinu dagozkie? Berrogei bat mila gutti gorabehera, eman dezagun. Lanak izaten dira, behar bezala ibil erazteko!

Hots,\* Jacobek dioenez, baktería xume baten «mezu\* genetikoak» *hamar milioi sinu* du. Sinu bakoitza, jakina, kimika-ekai berezi berezia izanik. Aski\* da, hortaz, kimika-radikal hoietako bakar bat behar ez den lekuan gertatzea (letrekin bezalaxe), bakteriarenak egin dezan. Kromosomako kate genetikoak *zehatza* behar da izan. Bestela, hutsik edo aldakuntzarik mendreena\* gertatuz gero, kitto! Bakteria baten programak hamar milioi sinu du. Beste era batera esateko, hamar bat mila Fortran-orri idatzi beharko lirakeke kopiatzeko. Baina, kasu! Gure Fortran-sinu *bakoitza*, *kimika-molekula munstro* bat da kromosoman, ezin zailagoa, ezin korapilotsuagoa.

Gizona, jakina, baktería bat baino zailago da: gure «mezu genetiko» horrek, Jacobek dioenez, *hogei mila milioi sinu* du. Nola molda daiteke mentura\* eta halabehar hutsez horrelako programa munstrorik? Irakurleak erantzun beza. Pitin bat programatu dutenek bederen\* (honetaz segur naiz) errazago onhartuko dute Fatimako miraririk bitxiena, tamaina horretako programa bat berez, mentura hutsez eta lan gaitzik\* gabe, zehatz eraiki daitekeela proposatzea baino.

Ez du Jacobek berak guk baino garbikiago ikusten misterio hau: «Ce qu'on ne comprend *absolument pas*, c'est comment peut s'élaborer un objet aussi compliqué». Ez du. «batere» ulertzen, aitor duenez.

Eta gure kezak eta ilunpeak horretan daudelarik, la-guntzaile gerta dakikegu, nik uste, orain dela gutti hil zen Paul Lévy matematikari jakintsuak, bere «Quelques aspects de la pensée d'un mathématicien» liburuan idatzi zuena. Aitor honek, Jainkoaren hipotesia onhartu nahi izan ez zuen zientzi gizon jainkogabe batena izaki,\* balio handiagoa du: «Si on admet que le hasard seul a pu produire des mutations et que la sélection naturelle a assuré la survivance des espèces les mieux armées dans la lutte pour la vie, on ne peut échapper à la conclusion que dix milliards d'années n'auraient pas suffi à la création de l'homme. Il faudra bien finir par dire: nous n'imaginons pas que *le hasard seul* ait pu faire tout cela». Hitz guttitara bilduz, mutazioen eragile soila mentura eta halabeharra izan direla ontzat ematen baldin bada, hamar mila milioi urtetako denbora ez da aski, gizona mundura jaio zedin: «azkenean hau aitortu beharko dugu: hori guztia mentura hutsak eginga izatea, ez dugula benetan asmatzen ahal». Paul Lévyk, horrela, ezinbestean, munduaren misterioa aitortzen zuen; eta Kosmoan «helburu»\* bat, «xede»\* bat, noratasun tankerako\* zerbait («une finalité» zioen berak) ba dagoela.

## LAMIAK

Ba dirudi, udaberria azkenez bere edertasun osoaz agertzeko asmotan dagoela. Azken jaietan ere Osaba Martin eta Eneko basotik ibili dira, lehen loreak ikusi eta txoriak entzutera.

Txori\* Herri aldetik doaz. Enekok, zientzia naturale-tako liburuan ugarai edo igelen\* bizitza irakurri dau, eta, maisuak esan dautsonez, sapaburu\* batzuk harrapatu nahi lituke erreka batean, ea beroneek igel zelan bihurtzen diren ikusteko.

Errekak, baina, inguruko fabriketako zikinkeriaz, oso lohi doaz; eta ez dirudi, bertan ez sapabururik ez arrainik topa daitekeenik. Hobe dabe putzuren batera joatea. Eta ondo joan dira, ba. Seminario atzeko partean ba dagoz putzu batzuk. Bertan igel berde haundi batzuk kantaka entzun ditue, hara joatean urpera sartu direnak. Mangutsik,\* Enekok lau sapaburu harrapatu ditu.

Ba ziren uretan, sapaburuez gainera, halako animalia berdeska luze batzuk, lehorreko muskerrak\* lakoxeak, baina bizkar gaineen ganguartxo\* bana eukenak, aintzinako dinosaurioen antzera.

— Zertzuk dira horreek, osaba?

— Urandreak\* dira.

— Eta ez dabe ezer egiten? Ez dauke pozoirik?

— Ez, ez dabe ezer egiten; eta pozoirik\* ez dauke, igelen antzera.

Zientzi gizonak eta jakintsuak, beraz, ez dira gaur argitasunean murgilduta bizi. Ez gaur, eta ez lehenagoko mendeetan\* ere. Zozoak, berriz, bai: zozoak seguru eta irmo,\* bai gaur bai orain dela hamar mila urte. Zozoek katixima\* labur bat aski.

Gaur eta beti, argitasunean egon uste dutenak, ilunpeetan bizi baitira.

Baina ez dakite. Eta honexek ematen die, jakintsuek ezagutzen ez duten... irmokeria!

### LARRESORO

beza, **bei**  
daitezke, **daitekez**  
dakartzki, **dakarz** (dakaz)  
dakikegu, **daitekigu**, dakiguke  
daude, **dagoz**  
dezagun, **daigun**  
dezan, **daian**  
die, **dautse**, diote  
zaizkio, **jakoz**  
zedin, **eiten**  
zioen, **inoan**, esaten zuen

— Eta zergatik esaten jake «urandreak», ba?

— Ez dakit. Beharbada, lamien\* modura, uretan bizi direlako.

— Osaba, beste ipuin bat! Zertzuk dira lamiak?

— Lamiak edo laminak, euskaldun guztiok ezagutu beharko geunkezan pertsonaje batzuk dira, erreketan eta hibaletan bizi ei\* zirenak.

Lamiak, itxuraz, oso neska politak ziren; baina oinak ez eukezan pertsonenak lakoak, ahate\* edo igelen gisakoak\* baino, hau da, zapal zapalak. Egunez erreken barruan egoten ziren, baina iluntzean uretatik irten eta basotik ibiltzen ziren. Oso ile\* luzea euken, eta beraz orrazten luzaro ibiltzen ziren erreka ondoetan.

Ez ziren gaiztoak. Baina, behin, lamia batek orrazia erreka ondoko belarretan utzi eban, eta, bertan topatu eban andre batek berriro erreka bota ez ebalako, hurrengo gauean lamia etxera joaten jakon, «Maria lñazia, ekarri nire orrazia» deika. Andrea oihu hareekin guztiz bildurtu ei zan eta biharamunean orrazia erreka jaurtiki eban, aurkitu eban leku ondoan. Eta harez gero ez eban zarata gehiago entzun.

Lehengo baserritarrek esaten ebenez, soroetan\* jateko batzuk jartzen bajakezan, lamiek janari hareek hartu, eta, horren eskerra emateko, soroak goldatu edo jorratu egiten ei zituen.

— Ui, zelako gauza bildurgarriak, osaba! Baina orain ez dago horrelakorik, ez da?

Ez, Eneko, ez. Lamiak, ipuinetako beste lagun guztien antzera, aintzinako euskaldunen ametsetako mundu harretan bizi ziren. Beharbada ez dira hil. Ba leiteke erreketan gordeta egotea, hareengan sinesten dabenen zain. Batek jakin, gu ohera goazenean, edo goizean eguzkia agertzen danean, lamiak hemengo zelai lainotsuetatik dantzan eta kantatzen ez ote dabiltzan euren\* oin zapal horreekin.

— Begira, osaba, lamia bat hor!

— Non?!

— Ai, osaba, zelako sineskorra zaren! Bai ondo engainatu zaitudala!

### TRAUKO

dabe, **dute**  
dagoz, **daude**  
dauke, **dadukate**, daukate  
dautso, **dio**  
eban, **zuen**

eben, **zuten**  
euken, **zedukaten**, zeukaten  
eukezan, **zeduzkaten**, zeuzkaten  
geunkez, **genituzke**  
jake, **zaie**, zaiote  
jakezan, **zitzaizkien**, zitzaizkoten

## Definizio bat

Nola artikulua honen autorea Donostiatik Bilbora joan zen: eta han leiho tipi bat ukan zuen, bere izpiritua egurasteko\* eta irakurlea aspertzeko. Gainera esaten du zein bitxia den idazlearen bizia. Eta azkenean definizio bat eman nahi luke.

«Utzak ona hobegatik» (Oihenarte)

Euskal kulturgintzan gabiltzanok, merke saltzen dugu geure lana. Nahiz eta eskuetan gailurik\* ez ukan. Nahiz eta geure kopetan\* izerdirik ez izan, langileak gara.

Nahiz eta pozik bermatu\* eta aintzinatu\* herria salbatzeko, sakela, haizearen xistuaz beteriko sakela, hutsik dugu. Baina horrek ez du axolarik.\* Hori, daitekeen gutiena da. Kontent gara, kanpora agertzeko eta adierazteko parada\* ukanez gero. Bakar bakarrik eskatzen dugu leiho bat (pulpito bat gehiegi litzateke). Besterik ezean, usategiko leihotila tipi bat aski dugu. Baina hori eskatzen dugu, haize berriaz geure baita\* zertobait egurasteko eta argi berriaren beharra osatzeko.

Ordea, gaur goizean neure ohande\* hertsian\* itzarztean,\* Donostiako neure leiho tipi eta apala hetsirik\* aurkitu dut. Baina, Bilbo aldean besterik ukan ahal dudala pentsaturik, hara jo dut. Eta, ukan ere, ukan dut toki bat ANAITASUNaren orrietan.

Eta jabeturik, Euskal Mitologiari buruzko ihardunak ez direla hain bide- eta axolagabeak, Euskal Herriaren erraietan eta baitan uxarka\* eta aztarrika\* jarraitzea erabaki dut; pentsaturik, nahiz eta ene ihardunak «pelegrinoak» izan, ez direla behintzat «arrotzak» izanen.

Agian,\* kritikagarri izanen dira nire saiaerak,\* baina jakina da erretrau hark dioena: «Isilik dagoenak, ez dio gezurrik», edo eta beste hark: «Aho hertsian\* eulirik ez». Ordea, esan behararen ardura,\* lotsagabe eta adoretu\* da.

Baina, tira! Aski\* dugu aztikeriaz\* eta erdi-hitzez. Ez pentsa, irakurle, adarra jotzen ari naizenik. Aurreko hitzak «sibilinoak» eta estrainoak iruditu bazaizkizu, ez da zu gogorra zarelako. Gaur goizeko ene alferkeriaren errua\* duzu. Orain izan gaitezen serioesak, eta goazen harira.

Esaten nuen, aurrerantzean, ANAITASUNako orrietan ihardunen dudala Euskal Mitologiāz. Baina gaurkoan ezin nezake ezer askorik esan, zeren,\* uste gabe eta alferrikako solasean,\* kasikan artikulua burura heldu bainaz. Ordea, premiazko deritzat, besterik ezean, mitoa zer den lehiatuki\* eta laburki gogoratzeari.

### Hitz bortxatuak

Definizio asko eman daiteke mitoaz; giza jakintzen alor\* bakoitzean, mitoak ba du esangura\* berezirik. Bai teologian eta bai etnologian, mitoa bereziki ikuspegitzen da, eta azal-mami desberdinak daduzka. Adibidez, Ardoa eta Txuletaren\* mitoez ihardutean, pentsa daiteke, mito hauek zerikusirik guti dutela Barandiaran edo Baroja jaunek aztertzen dituzten mitoekin. Begien bistan da, Kismi edo Basajaunen mitoez erlazio kasuala dutela Ardoa eta Bizarraren mitoekin. Bereziak dira bi mito mota hauk,\* bai kronologiari eta bai haien funtzio kulturaleri dagokienez.

Ordea, aintzinako eta egungo mitoez *Hitzean* aurkitzen dute beren sostengua eta euskarria.\* Mitoak e- struktura asko du; baina haren egiturarik\* funtsezkoena, bere e- struktura linguistikoa da. Mitoa, hitza bera bezala egituratzen da funtsean.

Hitzak azala, muina eta esangura ditu. Haren egitura,

hirukoitza da. Mitoak ere, hitz bat izanik, forma (azala), kontzeptua (muina) eta esangurarik ba du. Haren egitura ere hirukoitza da, beraz.

Hitz orok\* bere esangura edo mazua\* du. Esangura hori jatorra da batzuetan eta erantsia besteetan. Mitoa ez da hizkuntza normalaren mailan gaketzen.\* Mitologia hizkuntzan oinharritzen da; baina beste hizkera berezi bat osatzen du, meta-hizkuntza bat (meta-lengoaia bat).

Hitzak, beren esangura jatorra galtzen dutenean, bortxatuak gertatzen dira; eta halako hitzak, mito-gai bihurtzen dira. Mitoa dela eta, hitza alienatu egiten da. Euskal mitologia oro,\* euskararen alienazio bat dugu. Beraz, desmitogintzak alderdi linguistikoa bat eta alderdi etimologia bat izanen ditu. Benetako heziketa\* batek ere, mitoen kontu hartu beharko du. Honela, Freire-k desmitifikazio bat bezala ikuspegituko du heziketa.

Zenbaitek ez du bereizten ideologia eta mitologiaren artean. Ordea, mitologiaren kontzeptua zabalagoa da, ideologiarena baino. Ideologiaren zutabe\* eta euskarriak, hitz mitikoak ohi dira. Politika eta soziologi mailan, mitoa, ingelesek «pattern» hitzarekin adierazten duten errealitatea litzateke.

Gizarte orok bere modelo eta proiektuak ditu. Modelo hoiek gizartearen ekintza guztiak kutsatzen dituzte. Modelo hoiek, adieraziak direnez, alderdi linguistikoa bat ba dute; eta, zentzu honetan, egitura mitikoa bat ukan dezakete. Adibidez, gizarte baten modeloa sozialista edo kapitalista izan daiteke; baina errealitatean modelo horren kontrako jokabideak egon daitezke, eta orduan mitoa- ren aurrean aurkituko gara.

Baina aski\* dugu gaurkoz. Beste egunetan, argituz joanen gara hemen emanikako aztarna\* ximple eta nahiko ilunak. Gaurkoan «leioa» zabaltzera mugatu gara. Eta esan behar dut, ikuskizun ederra nabari\* dela. Bilbotik edo Donostiatik so\* egitean, Euskal Herriaren aurpegia, berbera da. Letra bat edo besteren diferentzia ezik.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

daduzka, **daukaz**, dauzka

daitezke, **daitezkez**

dezakete, **daik**

nezake, **neike**

zaizkizu, **jatzuz**

### Karmele Rotaetxe anderearen berbaldia Ondarroan

Karmele Rotaetxe andereak berbaldi bat eman eban Ondarroan «Euskal alfabetatzaren arazoak» gaiari buruz, apirilaren 26an. Nahiz eta berba egiteko erratasun handirik ez daukan, oso pozik entzun ziren haren ideia interesgarriak. Berez literaturatik kanpo egon arren, literaturarekin zerikusi handia dauken beste gai batzuei buruz ere zerbait galdetu eutsoen entzuleek.

### Añoberos gotzainaren gutun pastorala

Añoberos gotzainak\* gutun\* pastoral bat argitaratu izan dau apirilaren 15ean. Hauxe izan da haren lehenengo pastorala, Bilbora etorri zantetik. Laburki esateko, moduz eta gizentasunez egin izan arren, zerbait pesimista eta negatibo iruditu jaku. Bizkaiko boteretsuen\* oihartzuna\* dan «El Correo Español - El Pueblo Vasco» egunkariak, ostera, harrera ona egin eutson. «Magisterio de nuestro Obispo» izeneko artikulua baten bidez.



# Euskera bizia indartu

ANAITASUNA-ren zuzendariari,  
ezer aldatu bage  
urrengo zenbakian agertu<sup>r</sup> dagian, erreguz.  
Bilbao, 1972, jorraillak 24

Trikuarrieta, lagun:

ANAITASUNA aldizkariak, 232-garren zenbakian, zuk egindako «Kili-Kili»ri eskutitz irekia argitaratu eban.

Zure zintzotasuna ta borondate ona ikusi dodazan ezkeru, erantzutera natorkizu.

Lenengo ta bein, eskerrik asko nire lanari egiten dau-tazuzan txalo ta zorionakaitik.

«Ez nauk oraindik gai —diraustazu— horrelako gauzei kritika sakon bat egiteko». Errez-errez, ba,\* ulertzeko eran eta labur-labur esango dautsut zeintzuk diran Kili-Kili'ren elburu, arazo ta asmoak.

Kili-Kili'ren elburua auxe dozu: **EUSKERA BIZIA IN-DARTU.**

Kili-Kili'ren arazoa: ume euskaldunak euskal alfabetatu eta, bide batez, euskal kulturaren oiñarriak emonaz, euren biotzetan euskal gogo sortzea.

Kili-Kili'rentzat euskal alfabetatzea auxe da:

- Euskerea belarriz ba-dakienai begiz erakustea.
- Berbak osorik erabilten irakastea.
- Lexiko, edo itzak, esakerak eta aditza garbitu ta aberastutea.
- Euskal sintaxis edo itzen jostaketa zaintzen irakastea.

Belarriz dakiena begiz irakatsi bear ba'dautsegu, ez-panetan darabilten euskerea edo antzekoa idatzi bear dautsegu.

Esate baterako:

«Sagarrak ekarri **dotzetas**» esaten dauan bizkaitar ume bati «dautsadaz» (edo «deutsadaz») erabilten irakastea, alfabetatze lana dogu.

«Dotzetas» esaten dauanari «dizkiot» edo «dauzkiot» erabilten irakastea, ostera, beste euskalki bat irakastea dozu.

«Euskara batuan idatzi behar diagu —diñostazu—, batez ere haurrei **euskara irakatsi nahi diegunean**». Barrero bere\* auxe esan bear dautsut. Kili-Kili'ren egitekoa ez da aurrei euskerea irakastea, euskeraz dakien umeak alfabetatzea baiño. Ez da gauza bera.

Biak batera irakatsi leitekiozala?...

Ume bati oiñez ibiltan eta bizikletan ibiltan, biak batera, irakatsi leitekiozala? Ba-leiteke... Baiña bide orreik ez dira, orratiño,\* peragoji bideak. «Ezagunaren bidez ez-ezagunera» jo bear dala dirausku pedagojiako arau batek. Bide errezenera jo bear dogula bere\* ba-dirasuku. Sikolojiak, barriz, «izkuntz-konplejorik» sortuko ez dabon bideak jarraitzeko agintzen dasku.

Umeen poza ikusiko ba'zendu, Kili-Kili'ren kuader-noetan lenengo aldiz euskeraz irakurri eta **ulertu egiten dabela** konturatzen diranean!

Ori da, ba,\* nire eritxiz, alfabetatzea. Ori, euskera bizia indartzeko biderik **beiñena**.\*

Bide orretatik daroaguz umeak. «Kili-Kili SARIKETA» joko aundi bat da. Eta joko onen bidez, pozik, errez eta igarri barik\* ikasten dabe umeak euskeraz irakurten, idazten eta beste zenbait\* gauza, maisurik bage.

Asko zabaldu da Euskalerrian Kili-Kili: Bizkaian, Nafarroan, Gipuzkoan, Araban, Lapurdin... Aurten, Bizkaian bakarrik, 10.000 umeak diardue ikasten.

Ume onein geroari begira ba-ditu Kili-Kili'k beste asmo batzuk bere.\* Oneixek dozuz:

- Lenengo maillan (8-tik 14 urteraiño umeak) alfabetatu.
- Bigarren maillan (14-tik 16 urteraiño gaztetxoak) beste euskalkietara zabaldu.
- Irugarren maillan (16 urtez gorako gazteak) euskera baturantza jo.

Oneixek dituzu, ba,\* labur-labur esanda, euskera bi-ziaren alde Kili-Kili'k ditun arazo ta asmoak.

Euskerea euskaldunon «sinboloa» dala dirauastazu. Nirentzat ori ta geiago da...

Agur, lagun. Besarkada bat.  
Eta ikusi arte!

J. A. RETOLAZA

**Oharra:** Oneik dira Kili-Kili'k darabilten euskerea erabilteko errazoiak. Nik karta onetan egiten dodan euskerea erabilteko ba-dot beste errazoirik. ANAITASUNA aldizkariaren zenbaki berean, 8-garren orrialdean, auxe irakurri dot «**Iratzeder**» izenburuko alkar-izketan.

— «Euskara batuari buruz ba dago eztabaida bat...»

— «**Nik neure euskara erabiltzen dut** (erantzuten dautso Iratzeder'ek). **Euskaltzaindiak zerbait esaten badu, orduan euskara batuagorot lerratuko\* naiz. Nik ba dakit, ene euskara, lapurtarra izan arren, euskaldun gehienek ulertzen dutela**».

**ZUZENDARITZAREN OHARA:** José Antonio Retolazaren eskaria errespetatuz, ezer aldatu gabe argitaratu dugu haren eskutitza. Geure aldetik, izenburua bakarrik erantsi diogu. Bide batez, berriro aditzera ematen dugu, «euskara batua»ren arazo honetan, ANAITASUNA aldizkariak, berak aurrez jarritako xedean\* iraungo duela.

dabe, **dute**  
dagian (daian), **dezan**  
daroaguz, **daramatzagu**,  
daramazkigu  
dasku, **dauku**, digu  
dautsazuz, **dizkiozu**, diozkazu  
dautsegu, **diegu**, diotegu  
dautso, **dio**  
diagu, **dugu**

diegu, **dautsegu**, diotegu  
diogu, **dautsagu**  
dirausku, **diosku**  
diraustazu, **diostazu**  
dodaz, **ditut**  
eban, **zuen**  
leitekioz, **lekizkeo**, lekizkieke  
nauk, **naiz**

## Herri zentsura

Tekniko militar batzuek ba diote, Vietnameko aberzaleen «gerrilla», beronek jasan\* duen desarroilatze mailan, tradizionalki organizatutako militar botererik haundiena menperatzeko zorian dagoela. Honetaz ezer gutti dakit, teknikoki hitz egiteko behintzat. Baina, teknika alde batera utzirik, eta Vietnameko herriaren eta Ipar Amerikanoen artean, teknikaren desberdintasunak partuko litzuzkeen biologiazko arrazoirik ez dagoela ematen badugu —eta eman egin behar, arrazistak ez bagara—, Vietnamekoen exitoa esplikatzeke, beste arrazoi batzuk behar genituzke. Agian\* logikoena honako hau dateke: Vietnameko abertzaleen moralia eta burrukarako kontzientzia dela hain zuzen ere, haien aurka daudenek ezagutzen ez duten eta menperatu ezin duten harma.

Elkarren kontra ari dira, alde batetik droga, gorrotoa eta burruka horren arrazoiaren ezagutzerik eza, eta bes-tetik diziplina eta herri zapalduen askatasunean jarritako konbikzio eten gabea.

Herri honetan konbikzio hori eta frutu bezala dakarren garaipena esplikatzen duen eguneroko gertakarietako bat kontatu nahi nuke. Uste dut, jakingarri izanen zaitzuela. Istorio honen esan nahia, zera izanen litzateke: garaipena, eguneroko ekintzan, eguneroko gertakarien aurreko portaerak dakarrela. Istorio egiazkoa, eta haundia bere ttikitasunean, Vietnameko herri zentsurari buruzkoa da.

Jakina da, gerra bat fronte askorekin osatzen dela, edo fronte askotan egiten dela. Gerra luze eta organizatu batetan are\* gehiago, noski.\* Fronte hauen artean garrantzitsuenetako bat «fronte ideologikoa» dugu. Hots,\* napalm-ez, torturaz, salaketaz inguratutako errealitate horretan, konbikzio gogor batek ematen duen pazientziarekin, «fronte ideologiko» horrek nekazariei esplikatzen dizkie beren hizkuntzan gerraren arrazoa, sufrimenduen zergatia, diziplinaren zentzua, garaipenaren beharra eta sentidua, eta edonongo herri harmaturen aurrean Ameriketako «kolosoaren» ahultasuna.

Ho Chi Minh bizi zelarik, bera zen, herri harmadak zabaltzen zituen informazio-orri guztien kontrola erama-

ten zuena. Esaten denez, orriak bere eskuetan zeduzkala, inguruetakoz edozein nekazariri ematen zizkion irakurtzeko; eta, konprenitzen ez bazituen, orijinal haik\* ez ziren zabaltzen. Erregela honek ez zion eskritorearen izenari edo eskribuaren zientifikotasunari begiratzen.

Mendebalde\* «jakintzu» honetako «zientifikotasun», «teknikotasun» eta mota guztietako teknologia aldrebesen inflazio, betekada edo gogaitasun honetan sarturik gabiltzanoi, Ho Chi Minh-ek hauxe erakusten dauku, alegia,\* helburua,\* herriak historiaren ardatza har dezan, kontzientziaztea bada, herriak aditzeko eran eskribatu behar dela. Teorigintza maila bat beharrezkoa da, noski; baina herriari zuzendua doana, herriaren zerbitzuan dagoena, eta hau logikoa da, herriak ulertzeko eran zuzendu behar litzateke, eskribuen helburua lehen aipatutakoa bada behintzat. Ez ote litzateke ordua, gure artean ere herri zentsura praktiko bat ezartzeko?

Exenplu hau, behar bezala kontsideratu behar genuke. Mementoa da, ene ustez, «mea culpa» sakon bat entonatzeko, eta, lanean jartzen garenean, ulergai izanen den maila errazago batetan jartzeko. Honek ez luke erakarriko, askok uste duten bezala, zientifikotasunik galtzea, baizik eta benetako zientifikotasun maila batetan jartzen hastea.

AINHOA

daude, **dagoz**  
dauku, **dausku**, digu  
dezan, **daian**  
dizkie, **dautsez**, diozkate  
genituzke, **geunkez**

zaitzue, **jatzue**, zaitzue  
zeduzkan, **eukazan**, zeuzkan  
zion, **eutson**  
zizkion, **eutsozan**, ziozkan

### «Zuberoa 1», disko berria

Donostiako «Herri Gogoa»koek disko bat atera berri dute, Zuberoko musikari eskainia. 17 kantu agertzen dira; eta, gai beroni lotuz, beste bi disko argitaratzeko asmoa dute. Eskatzekotan: Iñaki Beobide, Ferrerías 1, San Sebastián.



## DEPURACION DE AGUAS

**S. A.**

URA GARBITZEKO TRESNA BEREZIAK

Ur lohia gardentzeko, igertokietakoa berrizatzeko, edatekoa egokitzeke, lantegietarako prestatzeko.

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 - BILBAO

# DESERROTUAK

## Sufritzen dugulako, geure erruaz\* jabetzen gara.

(Sofokles).

Nor ez du sufritu gure herrian? Nork ez du jasaten,\* gure herriari egiten zaion bidegabea? Gure dolorearen jatorria, geure nagitasuna da. Agian\* ez dugu inoiz historiaren zentzua igarri. Euskal Herria, ekaitz bortitzen\* hondakin minbera da. Deshistoria arnegarri\* baten hondakin tristea.

Gure arbasoek herri hilotza,\* kasikan ezereztua laga\* daukute. Ez gaitezen engaina geure kondairaz; hura,\* deshistoria zaiku. Lainoan ebakitako hildoa.\*

Euskal kondaira berrikasi eta berrikusi beharrezkoa dugu. Villosladaren «Amaya» edo Beotibarko poema, gure gutziaren\* islada\* baizik ez dira; amets baten balizkoa.\* Gibelera\* egin dugun ametsa.

Euskaldunok politikan ditugun zenbait pentsakera, lurrik gabeko historian errotuak\* dira. Historia ez da inoiz ederra, eta are\* guttiago gure neurrikoa. Historia oro\* sorketa\* da, edo, zuzenago oraindik, asmaketa.

Historiaren funtsa\* gizonen izerdiek osatzen dute. Haren egituraren\* guna,\* Lana da. Materia du historiak bere funtsa. Materia neketsua eta lanaz frogatua.\* Baina guk, materia hori izpiritu bilakatu\* dugu. Historiak bere dituen kontraesanak razionalizatu egin ditugu; materia, izpiritu eta ideia bezala ikuspegituz.

Historia, ideologiaren sostengu eta zutabe\* da. Ideologia orok\* egiten duena, zera da: historia bat errekupe-ratu eta berrerosi. Dela Marx, dela Weber eta dela Ta-cito, denek beren joskera\* ideologikoaren arauera\* ta-xutu dute historia, gehienbat.

Hegel-en aburuz,\* historia errealtate libre bat da. Naturaren ukazio\* dialektikoa. Baina Hegel bera ere his-toriaren larritasunaz\* jabetzen da; eta «animaliak baka-rrik dira inozenteak», esaten du. Hain zuzen ere, gizonok errudun\* sentitzen gara; geure arbasoen historia kulpa bezala gureganatzen dugu. Historia karga bat dugu. Jasan\* beharrezko zama\* astuna.

Euskaldunok, historia bortitz\* bati itsatsiak\* gara. Kondaira aldrebes eta gogor baten gailurrean gautza.\* Baina geure historiak ditugun zenbait\* burubidek, go-gortasun eta zailtasun hori ukatu egiten dute; historia mitifikatuta dakusagu.\* Eta, sufritu arren, gaitz egiten zaiku geure akatsaz jabetzea.

Sufrimendua ez da absurdo bat. Nekaldiaren zentzua historiaren barnean aurki daiteke; eta egungo\* bidegabe askoren esangura\* historiaren bizkarretik ikas daiteke.

Baina funtzio politiko baten arauera\* asmatutako his-toria, ideologiaren gehigarri bat baizik ez da. Historiare-kin egiten dugun bidegaberik larriena,\* beraren ideologi-zatzea da. Historia, izpiritu eta ideia bihurtuz gero, etsi-penaren\* eta gutzia ororen\* justifikazio dugu. Historia-ren ideiatzea, alienazio bidetik abiatzea da. Materiaren aurpegi itsusja ideia-aren argiz alaitzen dugu, haren barne

garra itzaliz; zeren\* historiaren abiada, dialektikoa baita, burrukalari. Eta dialektikan zehar ideia hausnar\* badaiteke ere, ideia hori materiaren beste aurpegia da. Burruka da dialektika honen funtsa eta indar eragilea. Ideia eta materiaren arteko burruka Lanean korapilatzen da.

Lanak burutzen\* du natura eta kulturaren arteko lotura. Lana da izadiaren\* adierazpenik sakonena; eta lana, Hitz bilakatzen denean, kultura da. Ordea, kultura ez da egite libre bat, edo erabat\* askatua behinik\* behin. Kul-tura, determinazio eta libertatearen arteko dialektika ba-ten ondorioa da. Beraz, historia bikoitza da, eta haren dilema askatasun hertsia\* batean datza.\* Gauza jakina da, determinazio horren eragilea ekonomia dela eta po-litika determinazio horren justifikazioa, hots,\* razionali-zazioa. Materia, determinazioa, lana..., ideiatuak dire-nean, ideologiaren gai eta euskarri\* izatera heltzen dira.

Ideologia egitea, kondairaren nahaspila txukuntzea, hesitzea\* eta xedatzea\* da. Horretarako, kategoria xin-ple eta bakunez\* baliatzen da; metafisika eta teologia-ren eskema berak (hermeneutikoak) erabiltzen ditu. Bai-na hau dena historiaren desegitea da. Materia baten gaitzestea.\*

Historian barna susma daitekeen determinazio eko-nomiko eta politikoaren ideiatzeak, geroaren asmaketa galeratzen du. Ezin daiteke geroaz zuzen iharduki,\* bal-din kondairaren determinatze osoaz ez bagara jabetzen. Geure historiak zinezko\* ikuspegi horrek zientifiko izan beharko du: hau da, errealtate iragana\* bere hartan jaso beharko du. Materia, materia bezala, eta izpiritua mate-ria bortxatua bezala.

Materiaren nagusigoa klaroa da; eta are\* argiagoa, gaur egunean duen garrantzi dominant eta ezinbestekoa. Gero eta guttiago, zoriak\* ezer gutti heda dezake histo-riaren alorrean.

Euskal historiak eta geure egungo\* minduraz zuzenki jabetzeko, Gero ideal eta deserrotu baten kupida alda-ratu\* beharrean gara. Baldin ez badiogu historiak eta gaurko egunak duen determinazio ekonomiko eta politi-koari behar hainbat garrantzi ematen, beti geure zaurie-tako zornea\* mihizkatzen ihardunen dugu. Errealtatea gibelaturik.

Sufritzen dugulako, geure erruaz jabetzen gara. Eta geure kulpaz jabetzetikan datorke\* agian gure geroaren osasuna.

HOLTZ

daukute. **daukue**, digute  
diogu. **dautsagu**

zaiku. **jaku**, zaigu  
zaio. **jako**

## Anjel Zelaietaren mintzaldia Zornotzan

Apirilaren 28an, Anjel Zelaieta jaunak mintzaldi bat eman eban Zornotzan «Gaur egungo euskal literaturaren bereizgarririk ezagunenak» gaiari buruz, alfabetatze taldeko gazteak entzule zitularik.

## LIBURUAK

### «Por una escuela de pueblo», maisuen liburua

Célestin Freinet-ek (1896-1966) izugarrizko aldaketa probokatu zuen pedagogiazko metodoen alorrean,\* Europan barrena demokraziaren eta fazismoaren arteko burruka zitala suertatu zen garaian. Vichyko kontzentrazio gartzeletan egituratu zuen, hain zuzen ere, Freinet-ek liburua hau; eta frantses erresistentziaren barnean biribildu zituen haurren komunitate demokratikoari buruzko ideiak.

Freinet-en ustez, eskola batek ez du metodo konkretu batzuen arauera\* ihardun behar. Aitzitik,\* bizitzak markatzen dion lorratzari jarraituz, bizitza horren zerbitzuan egon behar du. Editorial Fontanella. Prezioa 75 pezeta.

### «Panorama de las literaturas europeas (1900-1970)», literatur historiako liburua

Albérès jaunaren liburu honi buruz hiru gauza bederen\* esan behar dira. Lehenik, tituluak berak dioen bezala, hemen ez dira aipatzen, hain garrantzi handiko diren Rusia eta Ipar Amerikako literatur egile ospetsuak. Bigarrenik, autoreak aditzera eman nahi du, literatoen sentsibilitateak gertakari guztiei aurrea hartzen diela, hots,\* literatura historiaren aurretik dabilala. Azkenik, literato guztiak, haiek darabiltzan gaien arauera\* klasifikatzen ditu; baina idazle bakoitzaren zitazio luzeak emanez. Editorial «Al-Borak». Prezioa 350 pezeta.

### «Amor cristiano y lucha de clases», Jules Girardiren liburua

Liburu laburra, baina oso interesgarria, Girardi idazle ospetsuak egina. Lehen partean, «kristautasuna eta iraultzaren biolentzia» aztertzen du; eta bigarrenean, «kristautasuna eta klaseen arteko burruka».

Compruebe personalmente que  
**BYASS 96**  
es tan importante como dicen...



**GONZALEZ BYASS**  
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

## Durangoaldea

«Etor bedi primadera, berriz diten\* kanpoak lora\*» kantatzen gengozela, horra hor non agertzen jakun «elurra mara mara». Maiatza atean, elurra ostean,\* eskerrak horren atzean.

### JAIK

Iorretako Oromiño hauzunean, apirilaren 25etik maiatzaren 1erarte, San Markos jaiak ospatu ditue. Jantzi itsusi, soinu, Markinako «Zerutxu» dantza taldea eta abar egon dira jendearen atsedean eta alaitasunerako. Egitarau\* orriak euskaraz.

Apirilaren 28tik maiatzaren 1erarte, Abadiñoako Matiena hauzunean, San Prudentzio jaiak ospatu ditue. Urte batzuetako hutsuneak betetzen hasi dira. Ea datorren urtean euskararen hutsunea ere betetzen dozuen, zuen arteko euskaltzaleen ezagatik ez dot uste danik eta.

Maiatzaren 15ean San Trokaz jaiak Abadiñon.

### ALFABETATZEA

Alfabetatze taldekoek antolaturik, J. L. Goikoetxea eta Juan San Martin jaunek hitzaldiak eman ditue Matienan eta lorretan. Joan ez zirentzat esango dogu, makina bat gauza jakingarri esan euskuela.

### ADORATZAILEAK

Dakidanez, Jainkoari gaueko bakartadean laguntzera joaten diren «Adoración Nocturna»koak, orain arte jai bezperetan joaten ziren. Baina, antza, hori ez da nahikoa, eta eskualdeko\* herrixka batean astegunetan ere joaten hasi dira.

Lehengo egun batean, gauean hitxitako eliza, goizean zabalik agertu da, musika paperak nahastuta. Eta jakinnahi bat gelditu jat neure barruan: Adoradoreak musika zaleak ote ziren ala Bécquer-en nobelan bezala Maese Pérez organistaren antzerako milagru bat ote dan.

Dana dala, ekin Jainkoa alaitzen isil ordu horreetan, albokoak iratzartzeko bildurrik ez dago-eta.

### ELKARTASUNA

Apurka apurka hasi dira gure eskualdeko\* udalak,\* Gerediaga elkargoaren eraginez, elkartasunaren abantailekin\* konturatzen. Adibidez, oraindik oraintsu Mañaria eta Izurtza batu jakuz, ur ekartze arazoa elkarren artean zuzentzeko. Lau milioi peeta behar ditue obra horretarako, eta pentsatuta dauke zelan ordaindu.

JOAN

## Mallabia

Eguraldia guztiz ederra izan ez arren, apirilaren 23an ospatu zan Berano Txiki hauzunean San Jorje eguna. Antolatzaileak bertako gazteak izan ziren; eta, honeei esker, ezpatadantzari, bertsolari, asto lasterketa, pisu eroate eta dantza txapelketa ikusi ahal izan genduzan. Esku soinu eta txistu doinuz egindako euskal giro batean iragan\* genduan eguna. Txalo bero bat gazteoi.

Aspaldian ez dogu ikusi musikarako zaletasunik herriko gazteen artean, koruan kantatzen dauan gazte taldean izan ezik; baina orain 15 neska-mutilek dihardue solfeo ikasten, gero txistua jotzen ikasteko asmoz. Horretarako tokirik ez dogunez, elizako gela batean irakasten jaku.

Orain dala bi hilabete eta erdi inguru joan zan gure artetik gure lagun eta apaiz zan Mikel jauna. Goian bego! Orain beste gazte jator baten itxaropenean gagoz. Ba dau gure herriak horrelako baten beharra. Noiz helduko ote da?

## Grezia, hasierak eta Homeroren haroa (2)

K. a. XII. mendean\* dorioek inbaditzen dute Grezia. Bere biktoriak kantatzen ez dituen herri nekazari honek, lehengo monarkia gerlazalearen ordean, aristokrazia lur-lantzaile eta merkataria bat ezartzen du. Akeoek Asia Xipiko kostara joan behar dute, jonioen lurraldeetara, gerla\* asmo guztiak baztertutik. Ihes doazenek beren kanta heroikoak daramazkete Joniara. Han sortzen da epopeia, kultura eta herri arrotzen artean, hiru mende dirauen prozesu baten ondorioz. Horrela, azken forma jonikoaren azpian, akeoen kanta zaharren oihartzuna\* nabari\* dezakegu, eta halaber\* iturburuaren askotasuna, parteen kalitate desberdina, aldaketan batbatekotasuna.\*

Epopeia ez da poeta bakar eta indibidual baten obra. Baina ez eta «herri oso» batena ere. Ikusi dugun bezala, aurreko epokan, akeoen artean, poemagintzak joera indibidualista bat mostratzen zuen. Orain, egoera berrian, joera kolektibista bat azaltzen du: poeta eskolak agertzen dira, lana taldeetan egiten dutenak. Epopeia, eskola hauen obra da. Talde lan honekin, era berri bat hasten da poesia zaharrean, anartean\* arte plastikoetan soilik\* ezagutzen zena, eta literaturara ere lan banaketa ekartzen duena: lan erak eta tradizio bat sortzen dira, irakasleak eta ikasleak, maisuak eta laguntzaileak.

Guzti honek, *Iliada* eta *Odisearen* autoretzat Homero hartzen zuen teoria zaharra deuseztu\* egiten du. Homeroren leiendak, haren epopeiatik atera dezakegun irudiarekin ados\* ez datorren elementu asko daduka. Horrela haren itsutasuna, akeoen aurreko garaietako usteen oihartzun\* bat besterik ez da. Poemako Homero erdijainkoa ez dagokio epopeiaren garaiko pentsatzeko moduari. «Homero» izenaren pean, tradizio eta eskola etengabe hobetuen bilakuntza eta lan desberdinen ondorioa gordetzen da. Haren pertsona ez da pertsona konkretu bat, akeoen korteetako kanta heroikoetatik jonioen poema epikoetara doan eboluzioaren pertsonifikazioa baizik.

Poema homerikoak errezitatzen dituenak, rapsoda da.

Bardoaren eta rapsodaren artean ba da diferentziarik. Bardoak, erregeren eta nobleen aurrean kantatzen zituen bere kantak. Rapsodak, nobleziaren jauregietan eta handikien etxeetan errezitatzen ditu bere poemak; baina bai eta herriko festetan eta azoketan\* ere. Bardoa, erregeren eta haren basailuen gloriaren bozemailea zen; rapsoda, nazioaren iraganaren\* goratzailea bihurtu da.

Bizibideari dagokionez, rapsoda, poetaren eta aktorearen artean dago. Literato ikasia eta habila zen, ongi zekien ofizioaren teknika; eta haren eginkizuna, maisuagantik hartu zituen poemak kontserbatzea zen. Rapsodak Homeroren jarraitzaile bezala agertzen ziren, gremio heretsiak\* osatzen zituzten eta ez zuten zerikusirik delako «poesia herrikoi»arekin. Greziako «poesia epiko herrikoi» filologia erromantikoaren asmaketa bat da. Poema homerikoak ez ziren inoiz poema herrikoiak izan, ez sortzean ez gero. Ez ziren inoiz herriaren ohoan ibili. Ikuspegi berri honetan, poemok aurpegi\* berri batez agertzen

zaizkigu; baina ez dute horregatik beren misterioa galtzen, ez eta beren indar poetiko esplikagaitza ere.

*Iliadan* eta *Odisean* agertzen den munduari buruzko ideia, zeharo\* aristokratikoa da oraindik. Printzeei eta nobleziari zuzentzen da, haiez arduratzen\* da, haien usadio, arau eta idealez. Poemotan gerlari arruntak\* ez du garrantzirik, eta herri xeheko gizonak ez du izenik. «Homero»ren obra osoan ezein\* pertsonaia ez-noble ez da bere klasetik maila gorago batetara igotzen.\* Epopeiak ez du kritikatzeko erregegoa, ez aristokrazia. Baina urrundu da jadanik\* garai heroikoetako espiritua. Dena dela, epopeia ez da alde honetatik homogeneoa; eta Ulises, bigarren epopeiako protagonista, ez da Hektor bezain «heroea», poetaren munduari gehiago hurbiltzen\* zaio. Eboluzio honen gakoa\* garaiko gizartearen eboluzioan bilatu behar da: nobleziaren izate moldea aldatuz zihoan, eta poema homerikoa, gero eta gehiago, aristokrazia hiritar eta ez-guduzale batera zuzentzen da, edo eta noble ez den publiko berri batera.

*Hesiodoren* poesia, herrikoiagoa da. Hau ere ez da poesia herrikoi, ez dabil ahoz aho herrian. Baina haren gaiak eta ideiak, nekazariarenak eta noblezia lurrunak zapaltzen duen herriarenak dira. Hesiodoren obran mostratzen da lehenik klase arteko antagonismoa. Egia da, ez dela klase burrukaren denbora heldu, eta haren joera bakezalea dela. Baina, dena dela, hau da literaturan herri langilearen abotsa\* entzuten den lehen aldia, justiziaren alde eta jauntxokeriaren kontra egiten den lehen deia. Orain, lehen aldiz, poeta, ohizko\* gai erlijiozko eta kortetiarren alde batera utzirik, klase zapaldu eta ahaztu\* baten maisu eta kontseilari bihurtzen da. Lehen aldiz, poeta bere publikoaren heziketa politikoaz arduratzen\* da.

IBON SARASOLA

daduka, dauka	zaio, jako
daramazkete (daramatzate).	zaizkigu, jakuz
daroez	zihoan, joian, zoan
dezakegu, daikegu	



DANTZA TOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6. ta 11. ra  
Astegunez: 7. ta 11. ra.

---

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

## Neure lantokitik

Egun hauetan hainbat gai komentatu dugu geure lantegian. Hona hemen garrantzitsuenak.

### SOLDATAK

Zenbat behar du gaur Bilbon familia batek, aise\* bizi ahal izateko? Gai hau erabil dugu gehienbat. Proposatutako zifrak desberdinak dira. Nik neuk dato batzuk eskaini dizkiete, eta hauk bai direla seguruak.

Fabrika bateko langileek, batez beste, hilabetero hau irabazten dute:

Langileak	Pezetak	%
191	10 milatik behera	33
160	12 "	28
83	14 "	15
70	16 "	12
67	16 milatik gora	12

Lantegi hau normala da; hau da, ez daduka Bankuetxe baten espezializazioa, ez peontza hutsezko lana.

Eta bigarren ohar bat. Zifra hauetara heldu ahal izateko, langile askok extra orduak sartu behar izan dituzte.

### EUSKARAREN KONTRA

Orain direla egun batzuk, Santander-en, hitzaldi bat egon da. Hizlarien artean, Gobernadorea eta Mugimenduaren probintziako bigarren burua. Azken honek euskararen kontra berba egin zuen, eta haren hitzak honela argitaratu dituzte Madrileko «Ya» eta Bilboko «Hoja del Lunes»ek: «La emprendió con el dialecto que hablan poquísimas personas».

Nik dakidala, ez du esan zergatik hain jende guttik egiten duen euskaraz.

### TURKIA

ANAITASUNAREN 233. zenbakian esaten nuen, Turkia-ko hiru gazte iraultzaile\* heriotzera kondenatuak izan zirela. Jakin berri dugu, Senatuak konfirmatu egin duela militarren epai hau.

Bestalde, «Dev Genc» taldeko gazteek, haik\* salbatu nahiz, aireko bat bahitu\* dute eta Bulgariako Sofiara eraman. Barruan 67 pertsona daude, eta hauen truke gartzelatuaren libertatea eskatzen dute.

### LIBURURIK ERABIENA

Niretzat behintzat, euskal libururik erabiliena hau da: **Batasunaren Kutxa**. Beti dadukat neure mahai gainean eta egunero kontsultatzen dut.

### EUSKARA ETA IKASTOLA

Aipaturiko ANAITASUNAREN 233. zenbakian, J. J. jaunak euskara eta ikastolari buruz idazten du.

Konforme nago J. J. jaunarekin, bai eta Ibon Sarasolak bere liburuan esaten duenarekin. Eta ados\* ere, Kepa Hernabidek, euskaldun irakasleen aldizkarian, «Gurasoei Heziketaz (II)» artikuluan idazten duenarekin. Hau da, euskararen etorkizuna euskal problematika osoari loturik dagoela.

## MUGAK

### Trapaga-ko haranean

Ene euskalduntasunak

bere mugak ditu:

Kontuan har ezazue,

zuek,

Traukoko\* eta Oiartzungo Xabier biok,

Josepe Luis,

Serafin,

Joanito.

Ene euskalduntasunaren mugak hauk

dira:

#### Ifarrean:

Justizia.

#### Hegoan:

Libertatea.

#### Oestean:

Gizonak bititze noble bat edukitzea (astean bi egunetan jai eta urtean behin **sabbotnik\***).

#### Lestean:

Mutilkoek (eta neskatxek) estudiatzeagatik alokairu\* sufizient bat irabaztea.

Eta muga hauk ez dituen euskalduna

ez da euskaldun,

gizon ez delako.

Blasfemio hau

neure odolaz firmatzen dut

aurtengo lan-jaietan

Trapagako\* haranean.

1972.

GABRIEL ARESTI

Baina, ene ustez, ikastola euskararen aldeko burru-karen fronte bat da (beste batzuen artean), eta ezin dezakegu abandona. Gehiago oraindik, ahal den egokien eta arduratsuen jokatzeko tokia da. Eta, euskal pedagogo eta irakasleak lan horretan espezializatuak direnez gero, horrexegatik esan nuen, hauek aztertu eta proposatu behar zuketela, euskara irakatsi eta erabiltzeko pedagogiarik onena. Eta, jakina, beste edonork esateko zerbait badu, betor ordu onean haien lagungarri. Arlo honetan, laguntza guztiak ontzat hartzekoak dira.

### ZUHAITZAK

«El Economista» aldizkariaren 4.3000 alean (1972-V-15), bilbotar inginadore den Bernardo Mesanza jaunak Araba eta Nafarroako zuhaitzietz idazten du.

Haren eritziz, herrialde hoietan milaka hektarea daude aprobetxatu gabe, zuhaitz\* betetzeko oso egokiak direnak.

Zentralizazioa eta burukrazia gehiegia ei\* dira egoera triste horren oinharria; eta horrela ezin da ondorio onik lortu,\* batez ere bi probintzia hauen aberastasun eta industrializazioari begira.

Mesanza jaunak arrazoia du. Berak hori idatzi ondoren jakin dugu, Leitzako paper lantegiak Extremaduran muntatuko duela fabrika berri bat (Nafarroan egiteko zena), eta haren kostua 2.000 milioi pezeta izango dela.

Itxura denez, Nafarroan ez dago zuhaitz nahiko, fabrika haundi horren betebeharrari erantzun egoki bat emateko.

XABIER GEREÑO

**H I Z T E G I A**

**IMANOL BERRIATUAK**

**Ale honetan izartxo batekin agertzen diren berbak**

ABANTAIL, ventaja.  
 ABOTS, (aho hots) voz.  
 ABURU, eritzi.  
 ADORETSU, kementsu, gartsu.  
 ADOS, konforme.  
 AGIAN, beharbada, nonbait, seguramende, al parecer.  
 AHANTZ, ahantzi, ahantztu, ahaztu (Inperatiboetan).  
 AHATE, pato, canard.  
 AHAZTU, ahantztu, ahantzi.  
 AHUL, makal.  
 AINTZINATU, aurreratu, aurrera joan.  
 AISE, eroso, cómodamente.  
 AITZITIK, al contrario.  
 ALA, arau, a medida que.  
 ALDARATU, alejar, descartar, éloigner, écarter.  
 ALDARRIKATU, oihukatu, proclamar.  
 ALDERATU, comparar.  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.  
 ALOKAIRU, aloger, jornal.  
 ALOR, arlo.  
 AMAITU, bukatu, bururatu.  
 ANARTEAN, durante este tiempo.  
 ANITZ, ainiz, asko.  
 APEZPIKU, gotzain, obispo.  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARAZO, eginkizun, problema.  
 ARBUJATU, despreciar.  
 ARDURA, axola, arta.  
 ARDURATU, axolatu.  
 ARE, oraindik, aun, encore.  
 ARITU, ari izan, ihardun.  
 ARLO, alor.  
 ARNEGARRI, exasperante, descorazonador, décourageant.  
 ARRAPOSTU, erantzun, ihardespen.  
 ARRUNT, simple, ordinario, común, corriente.  
 ASKI, nahiko.  
 AURKIENTZA, paraje.  
 AUSART, valiente, intrépido, osado.  
 AUSARTZIA, valentia, osadia, atrevimiento.  
 AXOLA, ardura.  
 AZOKA, merkatu.  
 AZTARNA, aztarren, vestigio.  
 AZTARRIKA, aztarka, escarbande, grattant.  
 AZTIKERIA, magia, práctica adivinatoria.  
 AZTORATU, azorarse, asustarse, s'effrayer.

BA, bada, donc.  
 BAHITU, secuestrar.  
 BAITA, casa, interior; -gan.  
 BALIZKO, balizkako, hipotético, imaginario.  
 BAKUN, simple.  
 BARIK, qabe, bage.  
 BATBATEKOTASUN, repentinidad, exabrupto.  
 BATEKO, alde batetik.  
 BATERA, a la vez, al mismo tiempo.  
 BADEREN, gutienez, behintzat, behinik behin.  
 BEHAKO, begirada, mirada.  
 BEHAR EGIN, lan egin.  
 BEHINIK BEHIN, behintzat, bederen.  
 BEINEN, behinen, principal, primordial.  
 BELAUNALDI, generación.  
 BERE, ere.  
 BEREBEZIKO, pintiparado, de perlas, à propos, choisi.  
 BERMATU, saiatu, entseiatu, eginahala egin.  
 BERRIKI, orainsu, oraindik orain.  
 BIKUN, doble.  
 BILAKATU, bihurtu.  
 BILDU, bildutako, bilduriko.  
 BLAITU, calado, trempé.  
 BOLADA, unada, temporada, periodo de tiempo.  
 BORTITZ, fuerte, violento.  
 BORTIZKERIA, gogorkeria, indarkeria.  
 BOTERETSU, indartsu, poderoso.  
 BURURA, bururatu, burura etorri (potentzialetan).  
 BURUTU, lortu, erdietsi.

DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATORKE, dator nonbait.  
 DATZA, yace, consiste. (Etzan aditzaren forma).  
 DEITU, deitutako, deituriko.  
 DERITZE, erizten zaie, se les considera.  
 DESERROTU, desarraigar, déraciner.  
 DEUS, ezer.  
 DEUSEZTU, ezereztu.  
 DEUSTUA, Bilboko hauzunea, fama handikoak ziren Deustuko tomateak.  
 DIRAUTE, irauten dute, perduran.  
 DITEN, daitezen.  
 DUKE, du nonbait.

EGITARAU, programa.  
 EGITURA, estructura.  
 EGITURATZAILE, estructurador.  
 EGUN, gaur.  
 EGUNDOKO, sekulako.  
 EGURASTU, orear, airear.  
 EI, omen.  
 EKAIN, junio.  
 ERABAT, guttiz, zeharo.  
 ERABATEKO, completo, total.  
 ERAKUNDE, oragnismo, institución.  
 EREDU, modelo.  
 ERITZI, deitu.  
 ERRALDOI, gigante, géant.  
 ERROTU, sustraitu.

ERRU, hoben, culpa.  
 ERRUDUN, hobendun, culpable.  
 ESANGURA, esannahi.  
 ESKUALDE, comarca, región.  
 ESKUARKI, comúnmente, generalmente.  
 ESNATU, itzarri, itzartu, despertarse, s'éveiller.  
 ETSIPEN, desesperación.  
 ETSITU, desesperar.  
 EUREN, beren.  
 EUSKARRI, sostengu.  
 EZEIN, alguno. (Ezezko esaldietan, ninguno).

FROGATU, probar, demostrar.  
 FUNTS, fondo, esencia.

GAIENDU, gainditu, sobreponerse a.  
 GAILU, callo, cal, durillon.  
 GAINDITU, superar.  
 GAITU, capacitar.  
 GAITZ, extraordinario.  
 GAITZETSI, desaprobador, condenar.  
 GAITZITU, ofenderse, molestarse.  
 GAKO, clave.  
 GAKOTU, encerrar, fermer à clef.  
 GANGAR, cresta, crête.  
 GARATEKE, gara nonbait.  
 GAUTZA, etzanik gaude, yacemos.  
 GERLA, gerra.  
 GIBEL, atze.  
 GISA, era, modu.  
 GISAKO, bidezko.  
 GOGAIMEN, hastio, ennuí.  
 GOGAITU, hastiarse, aburrirse, s'ennuyer.  
 GOGO, gura, nahi.  
 GOGOETA, reflexión.  
 GOIBEL, triste.  
 GORAGALE, náusea.  
 GORPU, cadáver.  
 GOTZAIN, apezpiku, obispo.  
 GUN, núcleo, meollo.  
 GURA, gogo, nahi.  
 GUTIETSI, menospreclar, subestimar.  
 GUTIZIA, codicia, cupidité.  
 GUTUN, eskutitz.

HAIK, hareek. (Haiek aktibo, haik pasibo).  
 HALABER, igualmente, así mismo.  
 HASTAPEN, hasiera.  
 HATZEMAN, captar.  
 HAIJK, honeek. (Hauek aktibo, hauek pasibo).  
 HAUSNAR, hausnartu, rumiar, ruminar (potentzialetan).  
 HAUTAPEN, aukera, hautu, opción.  
 HAUTATU, aukeratu, elegir, optar por.  
 HAZIL, noviembre.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HELBURU, xede, fin, objetivo.  
 HERRIO, heriotze (zintzu aktiboan).  
 HERTSI, hestu: hetsi, hitxi, cerrar.  
 HEZIKETA, educación.  
 HILDO, surco, sillón.  
 HILOTZ, cadáver.  
 HIRIGINTZA, ordenación urbana.  
 HIRURDEN, tercio, tercera parte.  
 HOIK, horreek. (Hoiek aktibo, hoiek pasibo).  
 HORTAZ, horretaz, beraz, por consiguiente.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURA, ha.  
 HURBILDU, urreratu.

IDAZTANKERA, estilo literario.  
 IGARLE, profeta.  
 IGEL, rana, grenouille.  
 IGO, igan, igon.  
 IHARDUKI, tratar, hablar.  
 IHAZ, igaz, jaz.  
 IJITO, buhame, gitano.  
 ILE, ule.  
 INKESTA, encuesta.  
 IPAGAN, igaro, pasatu.  
 IRA'IL, septiembre.  
 IRAU, TZAILE, revolucionario.  
 IRITXI, heldu.  
 IRMO, fermu, errime, firme.  
 IRTEN, urten, atera, jalgi.  
 ISLADA, reflejo, réflexe.  
 ISTRIPU, accidente.  
 ITSATSI, adherir, juntar.  
 ITZARRI, itzartu, esnatu, despertarse, s'éveiller.  
 IZADI, creación, universo.  
 IZAKI, izanki, izanik.  
 IZEBA, izeko.  
 IZKUTUKI, izkutaturik (gorderik) dagoena.

JADANIK, ya.  
 JARRERA, postura, actitud.  
 JASAN, sufrir, soportar, aguantar.  
 JATOR, natural, auténtico.  
 JAZO, gertatu.  
 JOMUGA, helburu, fin, objetivo.  
 JOSKERA, arxis; contexto.

KARGUTU, konturatu, ohartu.  
 KATIXIMA, catecismo.

KAZETARI, periodista, journaliste.  
 KOKOLO, zozo, bobo.  
 KOPETA, bekoki.

LAGA, utzi.  
 LAMIA, lamina, sirena.  
 LARDASKA, nahasketa.  
 LARREGI, gehiegi.  
 LARRI, handi, garrantzitsu, grave.  
 LARRITASUN, garrantzi, importancia.  
 LARUNBAT, zapatu.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEHIATUKI, arinak arin, a prisa.  
 LERRATU, deslizar, glisser.  
 LIZARRA, Nafarroako Estella.  
 LORA, loratu (sujuntiboetan).  
 LORTU, erdietsi, ardietsi.

MANGUTSIK, en mangas de camisa.  
 MANDATU, mezu, mensaje, message.  
 MENDE, siglo.  
 MENDEBALDE, mendebal alde, occidente.  
 MENDRE, ahul, delicado.  
 MENTURA, azar, casualidad.  
 MEZU, mensaje, message.  
 MINTZO IZAN, mintzatu, berba egin.  
 MULTA, amanda.  
 MUSKER, lagarto, lézard.

NABARI, nabaritu (potentzialetan); evidente, patente, notorio.  
 NABARITU, percibir, notar.  
 NOSKI, naski, ciertamente, claro está, desde luego.

OHANTZE, ohe.  
 OIHARTZUN, eco.  
 OHIZKO, habitual.  
 OMEN, ei.  
 ORO, guzti.  
 OROITARRI, lápida conmemorativa.  
 ORRATINO, horregatio, hala ere.  
 OSTEAN, atzean.  
 OSTERA, viaje, voyage.  
 OSTERANTZEAN, bestela.  
 OZTA, a penas, à peine.

PARADA, abagadune, era, ereti, ocasión.  
 PERIL, peligró.  
 POZOI, pozoin, veneno.

SABBOTNIK, rusok, urtean behin, ezer kobratu gabé lan egiten duten eguna.  
 SAIAERA, entsegu, ensayo, esai.  
 SAPABURU, renacuajo, tétard.  
 SARRI, maiz.  
 SERORA, sor, monja.  
 SO EGIN, behatu, begiratu.  
 SOLILK, soiamente.  
 SOLAS, berbata, hizketa.  
 SORKETA, creación.  
 SORO, solo.

TAMAL, lástima, pena.  
 TANKERA, estilo.  
 TRAPAGA, Bizkaiko San Salvador del Valle.  
 TRAUKO, Bilboko kale bat.  
 TXORI HERRI, Bilbo ondoko eskualde bat.  
 TXULETA, kosteleta.

UDAL, municipio.  
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).  
 UKAZIO, negación.  
 URANDRE, tritón.  
 UTZAK, utz ezak.  
 UXARKA, hociendo, fougeant avec le groin.

XARAMELATU, cantar con arte.  
 XEDATU, limitar, determinar, fijar.  
 XEDE, helburu, fin, objetivo.  
 XUME, txiki, tipi.

ZAMA, karga.  
 ZEHARO, guttiz.  
 ZEIN, nahiz, edo.  
 ZENBAIT, batzuk.  
 ZEREN (ETA), ze, pues.  
 ZILEGI, licito.  
 ZINEZ, benetan.  
 ZOLA, fondo, base.  
 ZORI, acaso, ventura, suerte, azar.  
 ZORNE, materia, pus.  
 ZORNE, zori, destino, suerte.  
 ZUHAITZ, arbola.  
 ZUNTZ, fibra.  
 ZUTABE, columna, sostén.

## Bertsolaritzaz pentsatsen

Goazen harira.

Pertsona batzuek, bertsolaritzari buruz hitz egiten dutenean, edozein gauza zailari ematen zaion balioa ematen diote; eta, beraz, kitarra, tutua eta bonboa batera jotzen dituen zirkoetako «gizon orkesta» delakoarekin alderatzen\* dute bertsolaria.

Ba dirudi, pertsona hauek, musika berbera baino, berau egiteko gaintitu\* behar diren eragozpenak dituztela atsegin. Bertsolaria, inork egiten ez duena egiten duen gizon harrigarri bat besterik ez da. Azterketa ahul\* honen ondorio bezala, bertsolariak ez du beste behar apartekorik. Malabarista batek duen berbera, noski.\*

Beste batzuen joera, are\* ere negatiboaga da. Huek, gizarte kapitalistari dagokion balore sisteman jokatu, ez dituzte gauzak aztertzen, erabiliak izateko dadukaten baloreagatik, baizik eta merkantziak bezala, beste gauzekin kanbiatzeko dadukaten balorearen arauera.\* Modu berean, giza harremanetan pertsonak ez du balio bere benetakoa dohai eta bertuteagatik, baizik eta pertsona horri ematen zaion baloreagatik, gizartean okupatzen duen tokiak dadukan balorearen arauera.

Ez da, bada, harritzekoa, holako balore sisteman daudenek bertsolaritza mespreziatzea, euskal kultura guties-tea,\* jakina baita gure kulturak merkantzia bezala zein guti balio duen, zanpaketak zein merkeak egin nahi dituen euskal gauzak. Hauen azterketan, bertsolaria inguru gabeko fenomeno soil eta bakar bat bezala azaltzen da. «Bertsolaria arrasto folkloriko bat da eta mundu berrian zer eginik ez daduka», diote.

Gaur eta beti, kultura zabaldu nahi bada, kontzientzia sortu, gertakariak zinez\* esplikatu, jendea poztu eta beste zenbait gauza egin nahi badira (kultura ofizialki —hau da, Unibertsitate eta eskoletan— oso jende gutiri irixten\* zaiola ikusirik), zinemas, aldizkari eta liburuxkaz, antzerki eta kantuaz baliatu beharra dago. Horregatik, ideiak ahal den jende gehienei zabaltzeko, forma egokienak bilatu ohi dira; hainbat gauza adierazteko, bide efektiboenak aurkitzen saiatu ohi da gizona.

Eta, alde honetatik, krisia nabari\* da arlo\* guztietan. Adibidez, zinema, gizarte errepresibo honetan, zentsura eta galerazpenekin aurkitzen da, zerbait «esan» nahi duenean. Bestetan, berriz, filma berandu irixten zaio jendeari, batere gaurkotasanik ez duen garaian (eta, beraz, sistemarentzat arriskurik batere ez dadukanean). Zine klubetan bakan batzuk elkartzan dira. Bestalde, nahikoa da igande arratsalde batean zinemara joatea, filmak eduki dezakeen «mezua»\* eta «esannahia» inork konprenitzen ez duela konturatzeko. Filma alienatzaileek, ordea, gero eta medio hobeagoekin jokatzen dute, gero eta kalte haundiagoa egiten ari dira.

Telebisioa (oraingoz eta hemen behintzat, edozein motatako kulturari debekatua dagoen arloa) etxe guztietan sartzen da; baina ez da honela gertatzen liburuekin. Gizarte berrian, gogaimena\* problema latza bezala azaltzen zaiku.

Burjes antzerkia egin nahi ez bada, antzerkiak fabrika eta soroetan\* jokatu nahi badira, eragozpenak (ekonomikoetatik hasi eta teknikoetan bukatuz) kontu ezinak dira. Delako antzerki talde independenteen egoera larriak ondo adierazten du esandako hau.

Kantuak ere ba daduka bere lekua eginkizun honetan. Orain arte, mito sortzaile izan da gehienbat (ugari zabaldu eta zabaltzen den) musika mota hau. Industria boteretsu\* baten tresnak izan dira kantoreak. Gaur, poema kantatuekin eta abar (honek ere akatsak eduki arren), metodorik efektiboena bezala agertzen ari da, gure herrian ikus daitekeen bezala.

Eta hemen dator bertsolaritza.

Ene ustez, bertsolariak dohai asko daduzka, lehen esan ditudan eginkizunak betetzeko. Alde batetik, zentsuratzen eta galerazten zailenetakoa da, edozein leku eta mementotan bota baititza bere bertsoak. Oso herrikoia eta demokratikoa da, zeren\* behartusuenengana ere erraz hel eraz baitezake bere boza. Oso zuzena eta direktoa delako, erantzuna emateko guztiz aproposa da, problema sortu den tokian bertan kanta baitezake. Gainera, arteak eta mintzabide guztiek daramazkiten tendentzien erdian sartuko litzateke. Izan ere, zineman (beste askoren artean Losey), antzerki berrian (horra hor Nancy-ko festibala), eskulturaren (Oteiza, ez da hala?), halako ximpletasun batera jotzen ari dira, gauzak erraz erakutsiz, bakoitzari «hau edo bestea» aukeratzeko askatasuna emanez, alferrikako hitz edo elementurik sartu gabe, eta abar.

Jakina, bertsolaritza forma aparta izan arren, forma horren jabe den pertsona konkretua, eta beronek erabiltzen dituen gaiak, sentsibilitate, zorroztasun, jakituri eta ez dakit zer gabekoak baldin badira, forma horren efektivitate zeharo galtzen da. Deustuan\* gaur ezin daiteke tomaterik bila; gaur ez dago santuen bizitza kontatzen ibiltzerik. Baina, gaurko bertsolariak beste Xenpelar, Txirrita edo Enbeita izaten badira, ez dago zertaz ikaratu beharrik. Bertsolaritza indartuz joango da, eta haren entzuna ugartuz. Edo, behintzat, hala joan beharko luke, dohaiak ba ditu eta.

BERNARDO ATXAGA

daramazkite, **daroez**  
daude, **dagoz**  
dezake, **daike**  
zaio, **jako**

diote, **dautsoe**; **dinoe**  
ditzake, **daikez**  
zaiku, **jaku**, zaigu

### «Oskorri» taldea Zornotzan

Bilbotar «Oskorri» taldeko kantariak ihardunaldi bat eman eben Zornotzan, euskal alfabetatzearen alderako, apirilaren 22an. «Eskribitzen badautazu» izeneko kanta, inoiz baino hobeto atera eben; eta euren\* pentsamoldea ere inoizko garbien azaldu, nahiz eta betiko era eta manera desegoki eta baldreseau.